

KOSTUEN EGITURA

Offline berehalako itzulpena duen entzungailuak ekoizten dituen enpresaren kostuen egitura kostu finko eta aldakorretan banatzen da.

Alde batetik, ekoizpen-kostuak ditugu. Horiek zuzenean lotuta daude sortzen den unitate bakoitzarekin, hala nola kasko adimendunekin, mikrofonoekin, bozgorailuekin, bateriekin eta ontziratzearekin. Fabrikazio- eta biltegiatze-azpiegiturak ere kontuan hartu behar dira, hasierako kostu finkoa behar baitute.

Bestalde, garapen teknologikoaren kostuak oso garrantzitsuak dira, produktuaren balio nagusia softwarean eta adimen artifizialean oinarritzen baita. Hor sartzen dira itzulpen automatikoko softwarea, AI algoritmoak, aplikazio mugikorra eta legezko lizentziak. Enpresan lan egiten duten pertsonekin lotutako gastuak ere badaude, hala nola ingeniariak, diseinatzaileak, marketineko eta salmentetako arduradunak, eta bezeroari arreta emateko taldea. Hauek dira hilero ordaintzen diren gastu nagusiak.

Azkenik, marketinaren, salmentaren eta banaketaren kostuak hartu behar dira kontuan, publizitatea, azokak, webgunea eta denda-marjinak barne.

Laburbilduz, enpresaren kostuen egitura hasierako inbertsio handietan eta kostu finkoetan oinarritzen da, baina salmentak handitzean unitateko kostuak murrizten dira eta erredua errentagarriagoa bihurtzen da.